



**LIBURUA**

**Izenburua:** 'Liburu bat'. **Testua eta marrazkiak:** Herve Tullet. **Orrialde kopurua:** 60 orrialde, koloretan. **Adina:** 4 urtetik gorakoentzat. **Argitaletxea:** Tarttalo.



**LIBURUA**

**'Erikaren ttilikak'**

Erikak ile harro-harroa zuen, eta, horregatik, lagunek iseka egiten zioten. Orduan, aurpegi iluntzen zitzaion Erikari, eta negarrez hasten zen. Negar ttilikak poliki-poliki irristatzen zitzaizkion masailetik behera. Erikak, baina, ez zituen inoiz malkoak xukatzen; haien bidea egiten uzten zien malkoiei, balkoiko loreontzietan pausatzen ziren arte. Castillo Suarezen istorio hau marrazki ederrez apaindu du Estibalitz Jalon marrazkilariak.

**Castillo Suarez Estibalitz Jalon**

Argitaletxea: **Aizkorri**

**Itziar Irastorza**

TTARTALO ARGITALETXEKO ARGITARATZAILEA

«Haurraren parte hartzea eta akzioa eskatzen duen liburu magikoa da»

Hiru biribiltxo dira istorio berezi honen protagonistak: biribil hori bat, gorri bat eta urdin bat. Haiek ukituz, igurtziz eta laztanduz magia egitea zein erraza eta sinplea den ikusiko du irakurleak. Magia egiteko, baina, behar-beharrezkoa izango da haurraren parte hartzea. Jolasteko eta magia egiteko prest zaudete?

**Berez, oso-oso liburu sinplea da, ezta?**

Liburu sinplea bezain geniala da; irakurtzeko, ikusteko eta jolasteko material irudimentsua eta harrigarria. Liburu interaktibo bikaina eta sorpresaz betea, haurrak zein helduak txundituta utziko dituena.

**Koloretako biribil batzuk eta esaldi solteak; horiek dira liburuaren muina.**

Hiru biribil: bat horia, bestea gorria eta hirugarrena urdina... eta ekin magiari! Koloreekin eta formekin jolasteko energiaz betetako unibertso dibertigarri bat eskaintzen du lan honek. Horrezaz gain, *Liburu bat* haur eskolan espazioarekin lotutako kontzeptuak lantzeko tresna baliagarritzat jotzen da.

**Bizia duen liburu dirudi.**

Bizi-bizia da, haurraren parte hartzea eta haren akzioa eskatzen duen liburu magikoa. Istorioa biribil batekin hasten da... Hura ukituz, igurtziz, putz edo txalo eginez edo liburu bera okertuz eta astinduz, biribila ugaldtu edo lekuz, kolorez eta tamainaz aldatzen joango da orrialdez orrialde, irakurlearengan harridura eta barre algarak eraginginez.

**Liburu bat eta haren egilea munduan ezagunak dira.**

*Liburu bat* 25 hizkuntzatarara itzuli da dagoeneko, eta erreferentea bilakatu da haur literaturaren unibertsoan. Egilea, Herve Tullet artista grafiko eta ilustratzaile frantziarra, liburuaren mago handi bat da; jolasteko eta esperimintatzeko liburuaren eta margotze tallerren asmatzaile bikaina. Bere helburua da haurrei haien irudimena, sormena eta askatasuna garatzen laguntzea.

**Egileak jolas egiteko gonbita egiten die irakurleei.**

Bakarka zein taldean irakur daiteke, baina oinarrian partekatzeko joko bat da, beste hurrekin edota helduekin jolasteko aitzaki polita, non guztiek gozatzen duten, elkar ondo pasatzen ikusita.

**Liburuaren amaierara iritsita, irakurtzen jarraitzeko aukera dago.**

Bai, liburuak egitura zirkularra dauka. Orrialdez orrialde esaten duena eginez gero, liburuaren bukeran hasierako puntura iristen da irakurlea. Orduan, lehenengo orrialdera bueltatu eta irakurtzen eta jolasten jarraitzeko aukera izango du.



**LIBURUA**

**'Formak'**

Bainua hartzen ari diren bitartean, koloreak eta formak ikasteko eta haiekin jolasteko aukera izango dute gaztetxoek *Formak* liburuarekin. Liburu berezia da, uretan sartu eta busti arren ez delako hondatzen. Oso erraz garbitzen eta lehortzen da. Marrazki koloretsuak eta kolore eta formen gaineko oinarriko hiztegitxoak ditu. Gainera, soinua ateratzen du. 4 urte bitarteko haurrentzako liburu da. Olaia Salegik egin du itzulpena.

**Jo Moon**

Argitaletxea: **Bruño**

